

DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAK ETA FNAC DONOSTIAK JOAN ALVADO-REN ERAKUSKETA BAT AURKEZTEN DUTE: “AZKENEKO GIZAKIA LURRAREN GAINEAN”

- **Apirilaren 2tik maiatzaren 19ra bitartan bisitatu ahal izango da, eta Giza Eskubideen 17. Zinemaldiaren programazioan sartzen da.**

Fnac Donostiak, hiriko Udalaren Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak antolatutako Giza Eskubideen Zinemaldiaren esparruan, **Joan Alvado**ren (Altea, Alacant, 1979) **Azkeneko gizakia Lurraren gainean** erakusketa jarri du ikusgai.

Espainiako barnealde menditsuan kokatua, Mendi Zeltiberiarra deitutakoan, Europako bigarren eremu hustuena da, iparraldeko Laponia eta gero. Bertako zifra demografikoak izutzeko modukoak dira: 65.835 km²-ko hedadura eta 7,34 biz/km²-ra iristen ez den populazio-dentsitatea.

Azkeneko gizakia Lurraren gainean saiakera fotografiko bat da, hipotesi pertsonal batean oinarritua, zeinaren arabera despopulazioaren fenomeno ez den itzulgarria, kontuan hartzen badugu epe ertainera ez dela nekazaritza ez den beste eragile ekonomikorik existituko erasandako landa-eremuetarako. Hortaz, antzeman dezakegun etorkizun horretan, Lurraren gaineko gero eta azalera handiagoa egongo da, osorik edo partzialki, gizakirik gabe. Eta joera horrek sortuko dituen eszenarioetan, eremu horietako bizitza ez da izango orain ezagutzen duguna bezalakoa. Hausnarketa ireki bat planteatzea da asmoa, eremu horien etorkizuna zein izango ote den eta zein den gure erantzukizuna horren aurrean.

Joan Alvado (Altea, 1979) argazkilariak epe luzeko proiektu dokumentaletan oinarritzen du bere lana, klise bisualak eta ezarritako estereotipoak hautsi nahian. Bere irudiak hainbat argitalpenetan agertu izan dira: *Newsweek*, *The New York Times*, *CNN*, *The Washington Post*, *Bloomberg Business Week* eta bere lana argazkilaritzako ekitaldi eta festibaletan egon da ikusgai Espainian, Estatu Batuetan, Kuban, Turkian, Frantzia, Errumanian, Eslovenian, Georgian, Portugalen eta Italian.